


Lezoko zine agenda

APIRILA

ABRIL

2005



General


AUDITORIUMA

800
zine ma

Osteguna / Larunbata **2,00 €**

Igandea **1,00 €**


OSTEGUNA • jueves



EL SUEÑO DE VALENTÍN

1960. urtean kokatzen da istorioa. Valentín 9 urteko umea da eta bere amonarekin bizi da Buenos Airesen. 3 urte zituenean ama desagertu egin zen eta bere aita familia erantzukizunak hartzeko ez da gai. Bi helburu ditu: astronauta izatea eta, bere aita eta ama berriro elkartzea, bietako zein zailena? Argentinan azken urteotan sortzen ari diren pelikula zorigarri horien artean kokatu beharrekoa da honako hau ere. Pelikularen ezaugarri aipagarrienak: istorio polita, komedia gazi-gozoen bidetik eta Carmen Mauraren karreran bere lan berezi eta kuriosoenetakoa.


2003, Argentina. 86 min. Agresti, Alejandro
Julieta Cardinali, Carmen Maura, J.P.Noher, Mex Urtizberea, R.Noya.



EL PIANISTA

Polanskiren azken lanak Wladyslaw Szpilman poloniar pianista ezagunaren istorioa kontatzen du. Naziak polonian sartzen dira eta Varsoviako ghettoa sortzen dute. Szpilmanek hara joan beharko du judutarra denez. Betiko naziak, judutarrak, ghettoak... baina guztia musikari baten ikuspuntutik. Polanski berriro ere zinemaren historiako zuzendari garrantzitsuenetakoa dela berretsi zuten 2003an irabazi zituen 3 Oscarrek eta Cannesen, Europan, Goyetan eta Cesarretan jasotako sari guztiek.


2002, EB, Frantzia, Alemania, Polonia, Holanda. 150 min. Polanski, Roman
Adrien Brody, Thomas Kretschmann, F. Fnlay, E. Fox.



EL IMPERIO DE LOS SENTIDOS

Japoniako zine ekoizpenen artean klasiko ezagunenetakoa izango da pelikula hau zalantzarik gabe. Gutxi izango dira honi buruz hitz egiten entzun ez dutenak! Gizon batek bere zerbitzariarekin sexu harremanak izaten hasiko da. Harreman hori obsesio izatera iritsiko da eta beren desioak itzaltzeko edozer egiteko gai izango dira (eta egingo dute). Pelikula gogorra bezain interesgarria, eta morbosoa bazarete sexu esplizituaz gain, beste gordinkeria batzuk ikusteko parada izango duzue! Ondo preparatuta joan!

1976, Japonia, Frantzia. 105 min. Nagisa Oshima
Tatsuya Fuji, Eiko Matsuda, Aoi Nakajima, Yasuko Matsui.




RETRATOS DE UNA OBSESIÓN

Suspensea pixkanaka-pixkanaka hazten doan istorioa da honako hau. Seymour Parrish argazkiak errebelatzen ditu. Bezero gehienak ez diote kasu gehiegirik egiten, bai ordea Nina Yorkin-ek (Connie Nielsen). Jada urteak daramatza denda berean argazkiak errebelatuz. Parrishek pelikula bakoitzeko familia zorionsuaren argazki kopia bat egiten du ondoren bere etxean bakardadeari aurre egiteko. Poliki-poliki familiarengana hurbilduz joango da...

2002, EEBB. 96 min. Romanek, Mark.
Willimas, Robin, Nielsen, Connie, Vartan, Michael, Smith, Dylan.


LARUNBATA • sábado



CARROS DE FUEGO

VIII. Joko Olinpikoak ospatzera doaz 1924ean. Harold eta Eric medaila irabazteko prestatzen ari dira. Bakoitzak arrazoi ezberdinak ditu helburu hori lortzeko... Betiko klasiko bat! 2 sari irabazi zituen Cannesen eta 4 Oscar 1982an. Oscar sari horietako bat Vangelis musikagileari eman zioten, pelikularen musikagatik. Aipatu musika pelikularen aurkezpen txartela izatera iritsi zen eta filma zineman hainbeste landu ez den kirol generoarean erreferentea izan da.


1981, EB. 123 min. Hudson, Hugh
Ben Cross, Ian Charleson, Ian Holm, Alice Krige.



LA MATÉ PORQUE ERA MÍA

Vincent emakumezale amorratua da. Ez du emaztearekiko desleiala izan nahi, baina ezin du! Aldiz, bere emaztea ezin du beste gizon baten alboan ikusi. Ezkongabeen bakardadea ez bezala, alargunen askatasuna erakargarri egiten zaio... ondorioa: emaztea akabatu nahiko du. Philippe Noiret, Richard Bohringer, Thierry Lhermitte hiru-koteak Patrice Leconteren zuzendaritzapean beste komedia atsegin eta entretenigarria eskaintzen digute.


1993, Frantzia. 88 min. Leconte, Patrice
Philippe Noiret, Richard Bohringer, Thierry Lhermitte, Carole Bouquet.



AMELIE

Neska inuzentea eta ona, zorionsu izatea erabakitzen du eta horretarako bere inguruan dauden guztiei laguntzeko erabakia hartzen du. Bide horretan amodioa bilatuko du. Parisen kokatutako istorio atseginarekin datorkigu Jean-Pierre Jeunet oraingo honetan. Halere, pelikula honetan istorioa baino (edo bezain) interesgarriagoa dena zuzendariak lantzen duen plastika da. Gogoratzen *Delicatessen* edo *La Cité des enfants perdus*? Oso saritua izan zen munduan zehar dauden hainbat lehiaketatan.


2001, Frantzia. 122 min. Jeunet, Jean-Pierre
Audrey Taotou, Mathieu Kassovitz, Rufus, Lorella Cravotta, Serge Merlin.



SALVAR AL SOLDADO RYAN

Steven Spielbergen beste superproduktzio honek 5 Oscar irabazi zituen 1999an. *Encuentros en la tercera fase*, *Indiana Jones* edo *ET*-ren egilearen ekoizpen asko interesgarriak ez badira ere, aitortu behar da gerraren inguruan egindako *La lista de Schindler* edo hau bera oso interesgarriak direla. Kasu honetan etsaiaren zonaldean geratu den paraxutista baten bila joan beharra da gerraren bidegabekeriak erakusteko erabiltzen den aitzakia. Ah, pelikularen hasiera antologieta sarten diren horietakoa!


1998, EEBB. 170 min. Spielberg, Steven
Antzez.: Hanks, Tom, Sizemore, Tom, Burns, Edward, Pepper, BarryDiesel, Vin.



AXTERIS GALIARRA

Erromatarrek badakite galiarrek edabe magiko bat hartzen dutela eta hori dela beren herrixka ez menperatzeko arrazoi nagusienetarikoa bat. Edabea Panoramix druidak bakarrik daki egiten eta ondorioz erromatarrek berau bahitzea erabakiko dute. Osagai horiekin, antolatua dago beraz Asterix eta Obelixen hurrengo abentura: Panoramixen bila joan eta erromatarrengandik askatzea hain zuzen ere.

2001, Frantzia 86 min. Goscinnny eta Urdezo
Marrakzi bizidunak.



RUDOLPH 2

Milaka haurren Gabonak izorratu nahi ditu norbaitek. Rudolph, Clarice eta Santa Klausek bat egin eta jostailu lapurraren bila joatea erabakitzen dute. Naufragoen hondartzaraino joango dira. Han Camilla erreginak kartzelan sartuko ditu, baina Rudolph ezagutu bezain pronto askatzea erabakiko du. Halere, Rudolph oraindik triste dago bere sudur gorria dela eta... Azkenean zer gertatuko da?

2002, EEBB 85 min. Bill Kowalchuk
Marrakzi bizidunak.



HIRUKIAK ETA ERRAUSKIÑE & SANDOKAN

Hirukiak guretzako hain ezagun eta gozagarriak izan diren beste ipuin eta abenturetako pertsonaiekin harremanak izaten jarraitzen dute. Oraingoan Errauskiñerekin topo egingo dute alde batetik. Bestetik, Sandokan borrokalaria ezagutze-ko parada ere izango dute. Bi abentura hauen berri izan nahi baduzu, orain duzu ikusteko aukera!

2004, Catalunya 60 min. Hainbat.
Marrakzi bizidunak.



BETIZU IZAR ARTEAN

Uztarock galaxiako ikuskizun-areto orbital erraldoia bat da. Bertan galaxiako lehiaketa musikal garrantzitsuena ospatzen da urtero. Betizuak ez dira honen aldekoak, baina, ezustean, bertan jotzeko gonbitea jaso dute. Eztabaida luze baten ondoren joatea erabakiko dute. Betizu da horren aurka dagoen bakarra. Eta zu? Behin Uztarockera iritsita, Betizuk guztia iruzurra dela jakingo du. Guztia musikaren bidez unibertsoa kontrolatzeko plan baten barruan dago.

2003, EH 79 min. Baleuko
Marrakzi bizidunak.

AUDITORIUMA

Sezala

APIRILA - abril

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA	22:00	EL SUEÑO DE VALENTÍN
LARUNBATA	22:00	CARROS DE FUEGO
IGANDEA	16:30	AXTERIS GALIARRA
OSTEGUNA	22:00	EL PIANISTA
LARUNBATA	22:00	LA MATÉ PORQUE ERA MÍA
IGANDEA	16:30	RUDOLPH 2
OSTEGUNA	22:00	EL IMPERIO DE LOS SENTIDOS
LARUNBATA	22:00	AMELIE
IGANDEA	16:30	HIRUKIAK ETA ERRAUSKIÑE & SANDOKAN
OSTEGUNA	22:00	RETRATOS DE UNA OBSESIÓN
LARUNBATA	22:00	SALVAR AL SOLDADO RYAN

MAIATZA - MAYO

IGANDEA	16:30	BETIZU IZAR ARTEAN
---------	-------	--------------------

ZIKLOA

Amos Gitai zubigilea

eguna/día	ordua/hora	pelikula
ASTEARTEA	22:00	KADOSH
ASTEARTEA	22:00	KIPPOUR
ASTEARTEA	22:00	KEDMA
ASTEARTEA	22:00	ALILA

AMOS GITAI zubigilea

ZIKLOA

Amos Gitai Israeldar zine zuzendaria da. Ez da bere herrialdeko hainbat jarrera politikoren oso laguna. Bere lanei jarritako oztopo eta zentsura medio, erbesteratuta bizi izan da. Ezin esan daiteke bere herrialdeko gobernuen enbaxadore kulturala izan denik, gehienetan aurrez aurre izan baitira elkar. Ez du horrek esan nahi beste aldekoak lagunak dituenik. Gertaeren irakurketa kritikoa egiten dutenak deserosoak izan ohi dira guztientzat.

90. hamarkada erdialdera Rabinen gobernuarekin bere sorterrria den Haifara bueltatzeko aukera izan zuen eta zinemagile palestinarra den Elia Suleimanekin (*Intervención Divina*) *War and Peace in Vesoul* pelikula egin zuten batera. Bere ustetan pelikulek gerrak geratzerik ez badute ere, horien ondorio izugarrien inguruan sentsibilizatzeko gaitasuna dutela uste dutenetakoa da. Pentsaera horrekin egindakoa da 'Israel' izeneko 11'09"01 - September 11 dokumental kolektiboaren kontakizuna.


Bere obra zinemetan gehiegi zabaldu ez den horietakoa denez, batek baino gehiagok behar adina kalitaterik ez duela pentsa zezaken. Ez dute hori esaten bere pelikulak ikusteko aukera izan dutenak. Egile deserosoak leku guztietan dira deseroso. Edonola Lezon esandakoak baieztatzeko aukera izango dugu apirileko astearte gauetan.



KADOSH

Muturreko ortodoxo familia batek osatzen du istorioaren testuigurua. Emakumeek etxeko lanak egiten dituzte eta gizonezkoek Torah eta Talmud-a ikasi. Rivka eta Meir elkarrekin ezkonduak daude baina ezin dute haurrik izan. Meir-en aita errabinoa da eta bere ustez emakume antzuak ez dira emakumeak. Beraz semeari bere emaztearengandik banatzea eskatuko dio. Gizarte kontserbadoreek eguneroko bizimoduan duten eraginaren isla da filmea.


1999, Israel, Frantzia 110 min. Gitai, Amos
Abecassis, Yaël, Hattab, Yoram, Barda, Meital, Klauzner, Uri.



KIPPOUR

1973ko urriaren 6an Kippur eguna ospatzen da. Herrialdea lasai dago. Egiptok Sinain eta Siriak Golango gainetan Israelen aurkako gerra hasiko dute. Istorioa israeldar soldaduen ikuspuntutik kontatua dago. Weinraub eta Russo erreskate zerbitzuetara doaz baina beren helikopteroa lurrera botako du aurkako armadak. Ez da betiko gerra pelikula. Erreskate zerbitzuen begietatik gerra baten ondorioak erakusten ditu eta, egia esan, ez du panorama leuntzen!

2000, Israel, Frantzia 117 min. Gitai, Amos
Levo, Liron, Russo, Tomer, Klauzner, Uri, Hattab, Yoram.



KEDMA

1948ko maiatzaren arabiar eta judutarren arteko borrokak martxan dira. Bi astetan ingelesak Palestina uztera doaz. 'Kedma' izeneko itsasontzian holokaustotik bizirik irten zirenekin betea doa Palestinaruntz. Ingelesak itsasontzitik jaistea debekatuko diete. Ez dute kasu egingo, tiroak, borrokak... Israelgo estatua sortu aurretiko lehen etorkinen berri jasotzen da. Ondoren etorkin horiek berak izango dira arabiarren aurka borrokan hasiko direnak...

2002, Frantzia, Israel, Italia 100 min. Gitai, Amos
Kashkar, Andrei, Yaralova, Helena, Abu-Warda, Yusuf, Moshonov, Moni.



ALILA

Tel Aviv eta Jaffaren arteko mugan dagoen eraikin batean bizi diren bizilagunen eguneroko bizitza islatzen du pelikula honetako istorioak: Schwartz zaharra bera zaintzen duen Linda filipinar gaztearekin bizi da, Aviran bere zakurrik gabe etxetik ateratzen ez dena, Mali eta Ilanen arteko amodio harremana...horrela 12 pertsonai ezagutu arte. Israelen ere bizitza estilo oso ezberdinak daudela erakusten duen filma.

2003, Israel, Frantzia 122 min. Gitai, Amos
Abecassis, Yaël, Klauzner, Uri, Laszlo, Hana, Lavi, Amos, Elkabetz, Ronit.

Goaz Antzeki Taldea

apirilak 8 ostirala 22:00etan


GEZALA AUDITORIUMEAN

Joseba Zulaikaren 'Adanen poema amaigabea' ekoiztuko dute Lezon

30 urte bete ditu Debako Goaz Antzerki Taldeak. Euskal Herriko talde betearnoetarikoena den Goaz taldeak hastapenetik ditu bere ezaugarrien artean ikuskizun guztiak euskaraz egitea eta amateur moduan aritzea. "gure filosofia herriko talde bat izatea eta amateur moduan jarraitzea da".

Aurten betetzen da konpainiak taularatutako lehen ikuskizunaren 30. urteurrena, Pierres Larzabalen Senperen gertatua hain zuzen. Urteak aurrera egin ahala, nabarmena izan da ikuskizunen itxuraldatzea, aukeratutako testuei zein estiloari dagokienez. Komedia motako herri antzerkia lantzen hasi bazi-ren, ondoren, beste motatako antzezlanak sortzeari ekin zioten. Tartean Daniel Landart, Xabier Mendiguren Elizegi, Luis Aranburu edo Alfonso Sastre obrak besteak beste.

30. urteurrena ospatzeko asmoarekin, gaur egun Renoko University of Nevada-dako irakaslea eta idazlea den Joseba Zulaikaren Adanen poema amaigabea eszenaratu zuten, "obra horrek guk bete ditugun beste urte betetzen dituelako". Dorronsorok egokitu zuen poema narratibo hori eszenaratzea zaila izango zela jakin arren, ausardiaz jokatu zuten Goazekoek "nabari izan behar zuelako gure urteurrena zela".



KONTZERTUA

Maelominza Musika Elkartea
Sax Dance

apirilak 22 ostirala 21:00etan GEZALA AUDITORIUMEAN

Jazz eta dantza elkarrekin. Saxofoi laukoteak, honako emanaldi berri honetan dantzari ematen dio lehentasuna. Horretarako bi dantzari ditugu. Dantzariak eurek egindako koreografiak dantzatzen dituzte, hainbat estiloko lanak interpretatuz: rag time, tangoa, funkya...

Ikus-entzuleari musika klasikoko kontzertuetarako aretoetan ohikoa diren kontzertuak ez bezala-koaz goatzeko aukera emango dio.

Gezala

AUDITORIUMA

K
U
L
T
U
R
A
K

